

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Markak. Gernika 1937

Bernardo Atxaga

PAMIELA

134+64 orrialde

12 euro

Gizadiaren aurkako krimenez

Kontzientzia lokartuak ernarazteko ahalegina da Pamiela argitaletxeak plazaratutako *Markak. Gernika 1937* lana. Batetik, aspaldiko iraganetik gizakiak bere ondorengoei utzitako aztarna artistikoen ganean Bernardo Atxagak egiten duen gogoeta dago. Gernikan eginitako sarraskia besteri leporatuz hainbeste urtetan jardundako faxistei, Picassoren *Guernica* pintura aurrean jartzen zaie, gizadiaren aurkako krimenaren sinboloa, alegia. Baina horrez gain, inoiz argitaratzerik izan ez zuten *Guernica* liburuxkatik hartutako dokumentuak eskaintzen ditu liburuak, ingelesez zeudenak euskarara itzuliak, euskarazkoak bere horretan;

eta *Guernica* liburuaren faksimile-edizioa ere bai, bere dokumentu grafiko eta guzti. ■

Hizkuntzak bereizi zirenekoa

Saure argitaletxeak bere *Compadre* bilduman plazaratutako komikiaren lehen alea da *Babelko txotxongilolaria*. Mendeetan liburu sakratutzat hartuak izan diren *Biblia* bezalakoen antzera, gizartearen hastapenetan gertatzen zirenetara garamatza kontakizunak. Noeren hurbileko ondorengoak topatuko ditugu Babelen. Egileak azaltzen duenez, Lehen Gizonari eta Lehen Emakumeari emandako opari nagusia hizkuntza izan zen, eta poz-pozik bizi ziren, munduko hizkuntza bakararren jabe zirelakoan. Hainbeste, Babelgo dorrea eraikitzea erabaki zutela, gizakien indarraren ikur izango zena. Baina halako batean, Jose magoa eta haren laguntzaile Toheak neska txiki beltz bat aurkitu zuten, hizkuntza erabat ulertezin baten jabe zena. Eta hitz egiteko era hark erabat aztoratu zuen Babel. ■



Babelgo txotxongilolaria

Jansain & Marrero

SAURE

56 orrialde

16 euro



Giza eskubideen hezkuntzaren teoria eta praktika

Batzuen artean

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

440 orrialde / 12 euro

Giza eskubideek hezkuntzan behar duten lekua izan dezaten

Asier Martínez de Bringasen zuzendaritzapean, sei adituk jorratu dituzte giza eskubideei buruzko hezkuntzaren teoria eta praktikaren oinarriak azaltzen dituzten lanak. Deustuko Unibertsitatea, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Gipuzkoako Foru Aldundia lagun izan dituen egitasmoa da, euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu den *Giza eskubideen hezkuntzaren teoria eta praktika*. Egileen helburua, hezkuntza-prozesuetan eta hezkuntza-pedagogiekin lan egiten duten guztiei tresna erabilgarriak eskaintzea da. Irakaskuntza arautuan —ikastetxe eta institutuetan— eta arautu gabean —gaztetaldetan, aisialdiko eskoletan, edo kultur elkarteetan— baita informalean ere —senide eta lagun artean—, gaiari buruzko hausnarketa bultzatzea da xedea. ■

Behinolaren azken zenbakia

Behinola haur eta gazte literatura aldizkariaren hamabosgarren zenbakian, besteak beste, liburu-dendak dituzte hizpide. Horretarako, Iruñeko Auzolan eta Bilboko La Gusana hartu dituzte elkarriketa gai. Horrez gain, Ana Unanuek eta Arantxa Agirreurretak Euskal Herriko lurralde ezberdinetako liburu-dendetan aurkitu dutena azaltzen duen *Gebiago saldu nahi dute* lana eskaini dute. Gainera, Galtzagorri Elkartearen izenean Galdakaon martxan jarritako *Letren Leibotik 2007* izeneko programaren berri ematen zaio irakurleari. Horretarako bertan parte hartu zuten Miren Atutxak, *Mattinek*, Itziar Zubizarretak eta Yolanda Arrietak beren ikuspuntuak agertzen dituzte. Ondoren, aurtengo Euskadi Saria eskuratu duen Iban Zalduaren ipuina dator. ■



Behinola

Batzuen artean

GALTZAGORRI

ELKARTEA

64 orrialde

8 euro



Komatxo artean 1

Mikel Asurmendi

UTRIUSQUE VASCONIAE

238 orrialde

18 euro

Mikel Asurmendik jasotako harri bitxiak

Makina bat elkarrizketa egin zuen Mikel Asurmendik Donostiako Herri Irratiko *Komatxo artean* literatur irratsaioan, bere gidaritzapean egon zen sei urteetan. Utriusque Vasconiae argitaletxearen eskutik plazaratu berriak dituen izen bereko liburu bien hitzaurrean euskal literaturaren paisaia murgiltzeko berealdiko aukera izan zela aitortu du. Gainera, 1997tik 2006ra iraun zuen irratsaioaren nondik norakoak eman ditu kazetariak –1999ko urritik egon zen programa bere ardura pean–. Elkarrizketa sakon haietako batzuk irakurtzeko aukera izan dute jada ARGIAko irakurleek,

aldizkarian plazaratu baitzituen Asurmendik. Orain haietako hogeita zortzi bildu ditu *Komatxo artean 1* liburuan. ■

2002-2006 arteko irratsaioetako mahai-inguruak

Komatxo artean irratsaioa Euskal Idazleen Elkartearen asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz eta Donostiako Herri Irratiaren ardura pean antolatu zen. Idazleekin egindako solasek osatu zuten bereziki saioa. Baina Ana Urkizak EIEko idazkaritza hartu zuenean, saioa berri-
tu egin zen, eta hilabeteen behin mahai-inguru antolatu zuten, baita saio bereziren bat edo beste ere,

urteroko Galeuscarri buruzkoa adibidez. *Komatxo artean 2* liburuan, mahai-inguru haiek jaso ditu Mikel Asurmendik. ■

Komatxo artean 2

Mikel Asurmendi

UTRIUSQUE VASCONIAE

162 orrialde / 15 euro



HARKAITZ ZUBIRI

«Nahi nuen orain eta hemen kokatutako ipuinak kontatu»

Zakur kale zure aurreneko liburu da...

Bai, baina betidanik izan dut idazteko ohitura, gutxienez institutu garaitik. Literatura izan nahi zuten testuak ziren, eta normalean ez nizekion inori erakusten. Baina duela bi urte ohartu nintzen baneukala nahikoa material zer edo zer egiteko, eta hasi nintzen baten bati erakusten. Eta prozesu horretan, azkenean, liburu hau atera da. Egia esan, ondo egon da jendea materiala erakusten hastea, hori ere nahiko aberasgarria izan da niretzat.

Mamiaz zer edo zer argitzerik bai?

Bada, nik nahi nuen orain eta hemen kokatutako ipuinak kontatu. Nire oraina XXI. mende hasieradotako da, eta nire lekua, Donostia –beno, Donostialdea, zeren Pasaia ere agertzen da–. Eta ipuin hauek idazterakoan, nire helburuetako bat sinesgarritasuna bermatzea izan da. Hori lortzeko baliatu ditut eza gutzen nituen kontuak, nolabait eza gutzen nituen kontuak: entzunak nituelako, zerbait ikusia neukalako, gertatzen direla badakigulako...

Aurre egin behar izan diozun arazorik handiena?

Dueta bi urte hasi zen prozesu horretan neukan materialetik baztertu behar izan dudana. Izan ere, kontakizun batzuk, nahiz eta errealak izan, fikzioan ez ziren sinesgarriak, eta nik sinesgarritasuna bermatu nahi nuen. Argi utzi nahi dut liburu ez dela inondik inora autobiografikoa.

Nolabaiteko lotura badago ipuinen artean, ez da hala?

Gauza batek baino gehiagok batzen ditu ipuinok. Lekua –Donostialdean gertatzen direla–; garaia ere –aurten gerta zitezkeen denak–. Eta hortik dator izenburuko *kale* hori ere. Hiria da haria.



Donostialdeko azpikeria agerian

Edozein lekutan gerta zitezkeen Harkaitz Zubiri

donostiar gazteak (1977) *Zakur kale* izeneko liburuan bildu dituen kontakizunak, baina idazleak hala nahita gehienbat Donostialdean kokatzen dira. Nola edo hala, etengabe goranahi dabilen pertsonaien jokaera agertzen du, bereziki, narratioetan. Horretarako, gutxi axola zaie pertsonaiei egoerak nor zapaltzera bultzatzen dituen. Beraien artean, badira enpresetako jabeak, enpresa horietako zuzendariak edo goi karguren bat dutenak. Baina, gehiago ere bai: Abegi SA enpresan eta Pasaia portuko merkantzien garratza arduratzen direnetan beren eguneroko irabazia atera nahirik dabilen langile soilak ere auzaltzen dira liburuan. Pertsonaia guztiek aurre egin behar diote bizitzan izan duten nolabaiteko gainbeheraren bati, eta eskrupuluak bazterrer



Zakur kale

Harkaitz Zubiri

SUSA

140 orrialde

13 euro

utziz ekiten diote ahalegini. Hor azaltzen da Harkaitz Zubirik agerian utzi nahi izan duen zakurkeria. Etorkizun oparoa goa bilatu nahi horretan pertsonaiek erakusten duten besteekiko maltzurkerian. Batzuetan, beraiek horrela tratatuak izan direlako, besteetan bere kabuz aukeratu dutelako. Azpikeriaren unibertsoa eskaini du idazleak *Zakur kale* bere aurreneko liburuan. ■

egileari galdezka